

4. GOI ERDI AROA



Goi Erdi Aroa izendatu dugun atal honetan musulmanak Iberiar penintsulara sartu eta mila eta ehungarren urtera arteko denboraldia izango dugu aztergai, hau

da, K.o. 711-1100. urte bitartea. Egia esan, Zestoari buruzko albisteak oso urri dira, baina historia orokorra, labur bada ere, ematen saiatuko gara.

4.1. VIII. MENDEA

4.1.1. Musulmanen inbasioa

Dirudienez Rodrigo, Bisigodoen azken erregea, Iruñea aldean baskoien aurka borrokan ari zen Andaluziara musulman arabiarrek eta berbereak sartu zirela jakin zuenean. Bere armadarekin hara joan zen erreinua arriskutik babestera, baina azkenean porrot egin zuen Guadaletoko batailan, 711. urtean.

Inbaditzaileak 714. urteko udaberrian, Tarik-en eta Musa-ren (edo Abu Abd ar-Rahman-en) soldaduak elkartuta, Toledotik Ebro ibaiaren ibarreraino heldu ziren. Toledoko tronua zela medio, Witiza errege zenaren eta Rodrigo erregearen aldekoak elkarren aurka ari ziren gerra zibilean, eta musulmanak Witizaren semeen aldeko agertzen ziren. Beraz, giro nahasi hartan Tarik eta Musak erraz hartu zuten Zaragoza.

Ondoren baskoiekin harremana izan zuten, eta, Briviescatik Leongo erromatar galtzadatik igarota, Duero ibaiaren arroan Galiziaraino ibili ziren. Baskoiekin (eta beste zenbait herrirekin) tratua egin zuten. Lehengo agintariak jarraituko zuten, erlijioa ere nahi zuenak lehengoa izango zuen, eta etxe zein lurren jabetzan lehen bezala arituko ziren. Zerga ordaindu beharko zuten, eta lurraren emaitzetako zati

bat ere bai. Bestalde, islamaren etsaiak ez zituzten babestuko. Ez zuten, beraz, borrokarik egin.

Ebro ibarrean, ordea, Borjako barrutiko Kasio konde buruzagia musulman bihurtu zen. Kasio kondea, edo agian Fortun semea, Musa eta Tarikekin Damaskora joan zen.

718. urtea baino lehen Iruñea errenditu egin zen al-Hurr vali edo gobernadorea agintean zegoela¹.



4.1. irudia. Iruñeko katedrala.

4.1.2. Musulmanak eta frankoak Akitanian

Iberriako musulmanen buru al-Shamh valiaren tropak Septimaniara (Rodano ibaitik eta Pirinioetatik Carcassonne alderainoko lurraldera) sartu ziren, eta Narbona 720. urtean hartu zuten. 721. urtean al-Samhek Pirinioen ekialdetik igarota Okzitaniako Tolosari eraso zion. Han Akitaniako Eudon *Handia* dukeak garaitu eta al-Samh hil egin zuen.

732. urtean, Iruñetik abiatuta, Abd ar-Rahman al-Gafiki gobernadorea Pirinioak zeharkatuta Poitiers-eraino iritsi zen¹. Lehenago Bordelera joan zen, eta han Eudon *Handia* garaitu egin zuen Garona ibaiaren edo Dordonia ibaiaren ondoan. Eudon dukeak laguntza eskatu zien frankoei, eta, urte hartako urrian, Karlos Martelek garaitu zituen musulmanak Poitiersko iparraldean (seguru asko Moussais-en). Bizirik irten zuten tropak bide beretik itzuli ziren Pirinioak zeharkatuta. Ondoren, Eudon dukea izango zen agintari Bordelen eta Tolosan.

Eudon dukea 735. urtean hil zenean, frankoen ustetan independenteegia zen Akitania bereganatu egin nahi izan zuten. Karlos Martelek 735-736an Bordeleri eta Blaye-ri eraso zien, Eudonen seme Hunaldo dukearen aurka. 768. urtera arte jarraitu zuten borrokek frankoen eta akitaniarren artean. Pepin *Laburraren* frankoek agian akitaniarrak menderatu zituzten, baina gaskoiak ez². Pepin laster hil zen, eta frankoen erreinua Karlomagno eta Karloman semeen artean banatu zen. Karlomagnok Hunaldo II.ari, Akitaniako Waifro dukearen semeari, aurka egin zion, dukerria eskuratu nahi zuelako. Lupo dukearen lurralde euskaldunean babestu zen Hunaldo, baina dukeak Karlomagnoen esku utzi zuen. Garona eta Pirinioen arteko Gaskonian, beraz, bertako buruzagiek agintzen zuten¹.

4.1.3. Orreagako bataila

Musulmanek zailtasunak izan zituzten Pirinio inguruko jendea mendean hartzeko. Abd al-Malik ibn Katan-ek (732-734) ez zuen arrakastarik izan, eta

ondorengo Ukba gobernadoreak (734-741) Iruñea berriz hartu behar izan zuen. Orduan Afrikako iparraldean eta Iberiar penintsulan berebereak matxinatu egin ziren, eta musulmanek atzera egin zuten. Beraz, Pirinio aldeko jendea aske geratu zen. Pepin *Laburrak*, frankoen erregeak (karolinjioen dinastiako lehen erregeak), Narbona bereganatu egin zuen.

767. urtean, edo agian aurreko urtean, Abd ar-Rahman I.a emirraren Badr buruzagiak Arabaren aurkako espedizioa eginda, bertako jendea mendean hartuta zergak kobratzea lortu zuen¹. Argitu beharra dago orduko Arabako konderriak (Asturiasko erreinuarenak) Ebrotik Baionako itsaso handirainoko lurraldea hartzen zuela eta mendebaletik ekialdera Ibaizabal-Nerbioi-Baia ibaietatik Urola eta Deba arroak bereizten dituen lerroraino hedatzen zela. Gipuzkoako gainerakoa Iruñeko erreinuaren zati izango zen³.

Iruñeko berririk ez dago Orreagako batailara arte. Garai hartan Iruñea inguruan nagusi zen jende indigenak agintzen zuen Iruñea hiriburuan ere, eta ez alde-rantziz. Iruindarrak ziren han inguruan bizi zirenak, baina kronista frankoek “nafar” izena erabiltzen hasi ziren haiek izendatzeko. Iruñea inguruko euskaldunek Pirinioetako iparraldeko euskaldunekin loturak zituzten.

Kordoban Abd ar-Rahman I.a emirrak agintzen zuen 756. urteaz gero, eta Asturiasen kristauak Errekonkistan hasiak ziren. Kordobako emirrak barruko konspirazio askori aurre egin behar izan zion. Haie-tako bat Zaragozako Sulaiman ibn Iakzan ibn al-Arabi-k egindakoa zen. Honek Karlomagnori laguntza eskatu zion, 777. urteko udaberrian Paderborn-era (Saxonia) joanda.

Orduan Karlomagnok Zaragozarako espedizioa prestatu zuen, hurrengo urteko, 778ko, udaberrian armada ugaria bilduta. Armadaren adar bat Septimaniatik eta, seguru asko, Bartzelona eta Oskatik igarota Zaragozara heldu zen. Beste adarra, Karlomagno bera buru zela, Orreagatik eta Iruñetik igaro zen, inolako oztoporik gabe, eta Zaragozaraino heldu ziren.



4.2. irudia. Urola ibaia Iraetan.

Sulaiman bila irten zitzaion Karlomagnori, eta Ebro ibaia Tuteran zeharkatuta, Zaragozara iritsi ziren. Han, ordea, matxinatutako beste buruzagi batek, al-Husain ibn Iahia izenekoak, hiriko ateak itxi eta uko egin zion Karlomagno hartzeari. Saxoiak altxatu egin zirelako albistea heldu omen zitzaion orduan Karlomagnori, kronista batzuek diotenez, baina beste batzuen iritziz itzulerakoan Auxerre hirira iritsitakoan jakin zuen altxatu egin zirela.

Karlomagnok ez zion Zaragozari eraso. Armada osoa bildu eta denak Iruñeko bidetik itzultzea erabaki zuen. Itzuleran bizkor ibili ziren, eta Sulaiman Karlomagnok berekin eraman zuen, baina musulmanen lurraldeetatik urrundu zenean Sulaiman bere semeek askatu egin zuten¹.

Karlomagno Iruñera iritsi zenean hiriko harresiak suntsitu egin zituen, jendea matxinatu ez zedin. 778ko abuztuaren 15ean Karlomagno Pirinioak zeharkatzen ari zen, eta euskaldunak mendien goialdetik eraso egin zioten armadako atzeguardiari. Ibarren barreneraino bultzatuta denak hil zituzten euskaldunek. Hornidurak lapurtu ondoren eta iluna laster zelarik, berehala sakabanatu ziren. Bataila hartan frankoen Egiardo (errege-seneskala edo administrazioko goi-kargua⁴), Antselmo (jauregiko kondea),

Erroland (Bretainiako markako dukea) eta beste asko hil ziren. Armadako buru gehienak hil zituzten euskaldunek, eta gero ezin izan zituzten topatu, berehala sakabanatu egin zirelako¹.

4.1.4. Iruñea erreinurantz

Karlomagnoaren espedizioak ondorio handiak izan zituen. Ebro ibarreko musulmanen altxamenduak zirela eta, emirraren aginpidea ahulduta zegoen, eta menditarrak nahiko independente zebiltzan. Horregatik, Abd ar-Rahman I.ak Zaragoza menderatu zuenean, frankoen eta baskoien lurraldeetara espedizioa antolatu zuen 781ean edo 782an. Kalagorri eta Vigue-ran izan zen; baita Iruñerrian, Aragoiko mugan eta beste zenbait lekutan ere. Beraz, mugako kristauak Kordobaren mendean geratu ziren.

Emirraren hurrengo urteetako espedizioak Asturiasko erreinuaren Ipar Ekialdeko frankoen “Marca Hispanica” deitutako lurraldearen aurka egin zituzten. Araba eta arabiarrek “al-Kila” (“gazteluak”) deitutako lurraldea zen islamaren muga.

Lehen aipatutako Kasio konde bisigodoaren ondorengoak, banukasitarrak, Abd ar-Rahman I.a emirraren alde azaldu ziren; baita honen seme Hisham I.a

(788-796) emirraren alde ere. Al-Hakam I.a emirra-
ren (796-822) agintaldiko lehen urteetan ere jarrera
bera izan zuten. Agian baskoien laguntzaz Mutarrif
ibn Musa ibn Furtun banukasitarrak gobernatzen
zuen Iruñean 798. urtean.

Karlomagno 781. urtean Akitaniako erreinua
bere seme Luis I.a *Errukitsua* izango zenarentzat
sortu nahi izan zuen. Luis semea Paderborn-go bilku-
ran 785ean euskaldunen erara jantzita aurkeztu zen:
traje motz eta biribilaz, alkandorako mahukak eraku-
tsiz, zangoak estalita, ezproiak oinetakoetan finkatuta
eta eskuan xabalina zuela. Euskaldunak famatuak
ziren, nonbait.

Iberiar penintsulako kristauak musulmanen men-
detik irten eta karolinjioen mendera etortzeko joera
zuten. 785ean Pirinioen ekialdean Girona, Ampuries
eta abar hartu zituen frankoen armadak. Mendebalde-
rago Cerdanya eta Urgel karolinjioen esku geratu
ziren, eta geroxeago Tolosako kondeek Pallars eta
Ribagortza bereganatu zituzten.

Hisham I.a 796an hil zenean Al-Hakam I.a semea
izendatu zuten emir, baina Abd Allah osabak ez zuen
onartu emir berria, eta 797an Akisgranera joanda
Karlomagno laguntza eskatu zion. Luis semea Oska
inguruan zen, baina aitak Akisgranera deitu zion.
Geroxeago, Luis semea eta Abd Allah Akitaniara joan
ziren, eta handik Abd Allahk Hispaniara jo zuen,
baina ez zuen laguntzailerik aurkitu.

Ebro ibarrean Bahlul ibn Marzuk-ek zen agintari.
Zaragoza 798-799an hartu zuen eta Tortosarainoko
lurrak mendean zituen, nahiz eta gune indartsuena
Barbastro ingurua izan.

Bitartean Tolosan Luis I.a *Errukitsua* erregeak
798. urtean Asturiasko Alfontso II.a erregearen eta
Bahlul-en mandatariak hartu zituen. Luis erregearen
asmoa Pirinioetatik hegoaldera Bartzelona, Oska eta
Iruñea (eta agian Tortosa) bereganatzea zen. 800.
urtean Luis erregea Bartzelonara heldu zenean, ordea,
Zado valiak ez zizkion atek ireki. Hurrengo urtean
hartuko zuten frankoek mendean. 799.ean Oskako
gobernadoreak Akisgranen hiria eskaini zuen, baina
hurrengo urtean Luis erregeari Oskan ere ez zizkieten
ateak ireki.

Iruñean, ordea, bertako biztanleek 799. urtean
Mutarrif ibn Musa banukasitarra hil egin zuten. Banu-
kasitarrak senidetuta zeuden baskoi-familia ahaltsue-
netako batekin, enekotarrekin, hain zuzen. Hurrengo
mendean ere bi familiak maiz elkaturik ibili ziren,
betiere, interesen arabera, frankoen eta musulmanen
mendetik aske ibiltzearen¹. 800. urtean Karlomagno
enperadore koroatu zuen Leon III.a aita santuak⁵.

Euskaldunek, frankoek eta musulmanez gain,
beste etsai bati ere aurre egin behar izan zioten; izan
ere, normandiar edo bikingoak hasi ziren itsasotik
ibaian barna, euskal lurrak arpilatzearen, lehorrera-
tzen. 799. urtean jo zuten lehen erasoak².

4.2. IX. MENDEA

4.2.1. Bikingoak euskal lurretan

IX. mendean, 840. urte inguruan, normandiar deitzen
zieten eskandinaviarrak (Danimarkatik eta Norve-
giatik abiatuta) Akitaniara iritsi ziren itsasoz, ohi
zuten bezala. Beren buruei “bikingo” deitzen zieten,
hau da, “itsasoko errege”. 843. urtean Nantes erre eta
suntsitu ondoren, 844. urtean, udan, lehen aldiz
Girondan azaldu ziren. Bordelek eutsi egin zien,

baina bikingoak Garona ibaian gora Tolosaraino joan
ziren. Hurrengo urtean, 845ean, Bordeletik iparral-
dera dagoen Saintes suntsitu zuten. 848. urtean Bor-
delera sartu ziren, diotenez bertako juduek traizioa
egin eta atek ireki zizkietelako. Ia mende osoa eman
zuten normandiarrek Akitaniari erasotzen. Apezpi-
kuek beren egoitzak utzi eta babes bila beste hiri
batzuetara jo behar izan zuten⁶.

IX. mendearen erdi aldera, 844. urte inguruan, Baionari ere eraso zioten, inola ere (eta 892. urtean ere bai berriro)². 844. urtean Lisboara eta Sevillara ere iritsi ziren. 859. urtean, berriz, Sevillan eta Algecirasen ziren. Iruñera etorri eta Gartzia Iñigez erregea preso hartu zuten. Bahisaria urrezko 70.000 txanponekoa zen, eta hurrengo urtean aske geratzeko modua izan zuen Gartzia erregeak¹.

4.2.2. Iruñeko erreinuaren sorrera. Eneko *Aritza*

IX. mendean Iruñea eta ingurua kristau euskaldunen esku geratu zen behin betiko. Musulmanak Oska, Tuteran eta Errioxan zeuden. Iruñean “baskunis” izeneko giza taldea bizi zen musulmanen arabera, baina frankoek “iruindar” eta “nafar” deitzen zieten. Inguuruan “sarataniyyin”, “challasqiyying” edo “galasgiyyin” (gaskoiak?) izeneko taldeak ere baziren. Araban eta Aragoiko Pirinioetako ibarretan ere bai. Denek egiten zuten euskaraz.

Talde haietan bi familia nabarmendu ziren: enekotarrak eta banukasitarrak (azken hauek Ebro ibaiaren arroan bizi ziren). Eneko izeneko pertsonaiaz oso gutxi dakigu. *Aritza* deitzen zioten, eta seguru asko Ximenoren semea izango zen. 851. urtean hil zela ziurtzat jotzen da.

Ebro ibaiaren arroa IX. mendearen hasieran al-Hakam emirraren agindupera etorri zen. Amrus ibn Jusuf buruzagia bidali zuen lurraldea mendean hartzera, eta lortu ere lortu zuen. Banukasitarren burua Zaragozan altxatu egin zen, ordea, eta 802ko abenduan hiri horretan hil zuten. Orduan banukasitarrak eta hauen lagun iruindarrak Amrus gobernadorearen aurka hasi ziren. Enekotarrak ziren Iruñeko buru, eta banukasitarrekin senidetuta zeuden.

Urtetan elkarren aurkako borrokan ibilita, 806an enekotarrek karolinjioei laguntza eskatu zieten. 812. urtean, ordea, Karlomagno eta Kordobako emirrak bakea negoziatu zuten. Aznar Galindo kondeak agintzen zuen Aragoiko Pirinio aldean, frankoen lagun

izanik. Enekotarrak (banukasitarrekin elkar hartuta), berriz, frankoen etsai ziren Pirinioen hegoaldean.

Orduan Luis I.a *Errukitsuak* espedizioa antolatu zuen Iruñera, eta itzuleran Pirinioak zeharkatzeko oso kontuz ibili zen, euskaldunen segadarik egon ez zedin. Iruñean belaskotarren familia utzi zuten agintaritzan, karolinjioen lagun gisa.

Emirrak, ordea, 816. urteko udan Abd al-Karim ibn Mugith tropen buru izendatuta, espedizioa bidali zuen Iruñera. Belaskok Asturiasko Alfontso II.a erregeari laguntza eskatu zion, eta bi armadek (kristauek eta musulmanek) borroka egin zuten, batzuen ustez Miranda de Ebro ondoan eta beste batzuen iritziz Aragoi ibaian. Lupo edo Otsoaren seme Gartzia, Antso (“Iruñeko zaldun onena”), Saltan (“matxuen” edo su-gurtzaileen zaldun onena) eta beste hainbat hil ziren.

Garona eta Pirinioen artean bizi ziren baskoiek altxamenduak egin zituzten, baina, azkenean, 817. urteaz Akitaniako errege zen Pepin I.ak, Luis I.a *Errukitsuaren* semeak, lurraldea baketu egin zuen. Bitartean Eneko *Aritzaren* baskoiak Iruñeko jabe egin ziren banukasitarren laguntzaz. Belaskok porrot egin zuen, eta Aragoi aldeko Pirinioetan eta Pirinioen mendebaldean ere frankoen uztarpetik askatu egin ziren.

824. urtean Eblo eta Aznar kondeek Pirinioez iparraldeko baskoiekin osatutako armada Iruñera gidatu zuten, baina ez zuten hiriburua hartu. Bertakoek garaitu egin zituzten. Harrezkero frankoek ez zioten Iruñeari eraso. Musulmanek, berriz, Araba aldera bideratu zituzten beren zigor-espedizioak, 824an eta 839an, adibidez. 839an eta 841ean banukasitarrak Alfontso II.a Asturiasko erregearen aurka, eta Kordobako emirraren alde, borrokatu ziren.

Musa ibn Musa zen banukasitarren buruzagia, eta 841ean bertan emirrarekin etsaitu egin zen. Musak Gartzia Iñigezi (Eneko *Aritzaren* semea) laguntza eskatu zion, eta arrakasta izan zuen. Harrezkero emi-

rrak behin eta berriz egin zituen espedizioak Iruñera Eneko *Aritzaren* aurka. Musa 850. urtean ere altxatu zen emirraren aurka, baina oraingoan Eneko *Aritzaren* laguntzaz. Eneko *Aritza*, Iruñeko lehen erregea, 851. urtean hil zen, azken urteak gaitzat jota egon ondoren¹.

kin elkar hartuta zegoela eta. Gartzia erregearen Fortun semea Kordobara eraman eta preso eduki zuten hogeituz. 862. urtean Musa ibn Musa banukasitarra, Eneko *Aritzaren* Asona alabaren senarra, hil egin zen. Iruñeko erregea aldika banukasitarrekin eta aldika asturiarrekin elkartuta ibili zen.



4.3. irudia. Iruñeko katedrala.

4.2.3. Iruñeko erreinua eta Asturiaskoa elkarlanean

Eneko *Aritzaren* ondoren Gartzia Iñigez izan zen Iruñeko errege. Hau, ordea, aldika banukasitarrek alde batera utzi eta Asturiasko erregearekin elkartzen zen. 855. urtean emirrak baskoien aurkako espedizioa bidali zuen, eta Arabako lurak arpilatu egin zituzten.

859. urtean eta 860. urtean Iruñeak musulmanen erasoak izan zituen, Asturiasko Ordoño I.a erregeare-

Kordobako emirrak gero eta altxamendu gehiago zuen bere emirerrian, bertako jauntxoak matxinatu egiten zitzaizkiolako. Orduan zigor-espedizioak Iruñera ere iritsi ziren, 873. urtean eta hurrengoan, adibidez. 877. urtean Arabaren kontrakoa izan zen, eta 878. urtean, besteak beste, Iruñearen aurkakoa. Muhammad I.a emirraren garaian Muhammad ibn Lubb buruzagiak haren izenean gogor jazarri zituen Arabako eta Iruñeko biztanleak. 882an Oibarko gazteluaz jabetu zen, eta Iruñearen aurkako borrokan ere gune garrantzitsuenak bereganatu zituen. Al-Mundir

(886-888) eta Abd Allah (888-912) emirren garaian ere Muhammad ibn Lubb-ek agintzen zuen Ebro ibarrean, baina 898. urtean Zaragozan hil egin zuten.

Orduan Asturiasko Alfontso III.a erregea eta Iruñeko Fortun erregea elkartu eta Borjako ibarrera joan ziren, baina Lubb ibn Muhammad semeak Tarazonan 900. urtean garaitu egin zituen.

Gartzia Iñiguez erregea 880. urtean artean bizi zen, baina urte batzuk geroago, 880. urte inguruan, Kordoban bahituta egondako Fortun semeak hartu zuen agintaritza¹.

4.2.4. Euskal Herriko elizbarrutiak

Gutxienez VI. mendez gero zeuden apezpikuak Iruñean, baina IX. mendean giro arriskutsua zela eta, Leireko monasterioan zuten egoitza. Han egon ziren XI. mendean Iruñera itzuli ziren arte⁷, baina iritzi honen aurkakoak ere badira⁸. Opilano apezpikuak 829. urtean Zangozatik iparraldera dagoen Usungo San Pedroren monasterioko eliza sagaratu zuen. Gero Wiliesindo apezpikuaren agintaldia 845-860 urte

bitartekoa izan zen. Ximeno da Iruñeko apezpikuetan hurrengo aipatzen dena. 880-890. urte bitartean izan zen Iruñeko elizaren buru⁸. Aralarko San Migelen bazegoen, dirudienez, eliza prerromanikoa, eta handik ere kristautasuna, transhumantziaren bidez, asko zabalduko zen¹.

Joan apezpikuak bere egoitza Valpuestan finkatu zuen mendearen hasieran, Oka-ko egoitza utzita. Aiarako bailaran, ordea, Oka-ren mende zeuden elizak eta monasterioak baziren. Arabako Albaro apezpikua ere azaltzen da, 888. urtean hila; izan ere, IX. mendean Araban beste elizbarruti bat sortu zen, egoitza Armentian zuela, Asturiasko erregeen agintean⁷.

Bizkaian, Elorrioko Arginetako hilobietako batek IX. mendeko inskripzioa du, 883. urtekoa, eta bertan “Momvs” pertsona-izena dago (K. Mitxelenaren ustez “Mome” izenetik eratorria⁹). Inskripzioaren azterketa zehatza egina dute A. Ruiz eta J. Agirrek⁴). Hurrengo mendean, Iruñeko Antso Gartzesen (905-925) Belaskita alaba Bizkaiko edo Arabako Momo kondearekin ezkondu azaltzen da¹.



4.4. irudia. Aralarko San Migel.



4.5. irudia. Zarauzko Andre Mariaren parrokiako kanpandorra.

Zarauzko elizan ere badira IX. mendeko aztarnak. Andre Mariaren parrokia barruan mende horretako tenpluaren arrastoak azaldu ziren indusketan¹⁰. Kanpandorrearen zoruan ere IX. mendearen amaieraz edo X. mendearen hasieraz geroko ehorzketak

daude¹¹. Datazioek diotenez, ehorzketak XI. mendearen hasiera artekoak dira¹². Beste tenplu bat ere eraiki zuten parrokia horretan hurrengo mendean, abside laua zuena, 4,73 x 10,40 m-ko neurriak zituen¹⁰.

4.3. X. MENDEA

4.3.1. Iruñeko erreinuaren hedapena

905. urtean Iruñeko erreinuan dinastia-aldaketa izan zen. Ximenotarren etxeko Antso I.a Gartzesek hartu zuen erreinuko agintaritzia, eta badirudi Fortun erregea Leireko monasteriora erretiratu zela. Errege berria berehala hasi zen inguruko etsaiekin borrokan. Banukasitarrak eta musulmanak garaitu egin zituen 907. urtean eta hurrengoetan.

907. urtean Antso erregea Lizarra aldeko lurraldeez, Ebro ibairainokoez, jabetu zen. Doneztebe-Deio eta Kalagorri bereganatu zituen, nahiz eta Kalagorri laster galdu zuen.

912. urteaz gero Kordoban Abd ar-Rahman III.a zegoen agintean, eta Leon aldera (916an) eta San Este-

ban de Gormaz aldera (917) zigor-espeditzioak egin zituen. Horri erantzunez Antso Gartzesen eta Leongo Ordoño II.a erregearen armadek elkarlanean Ebro ibarreko zenbait gaztelu hartu zituzten, baina 920. urtean Kordobatik Abd ar-Rahman bera etorrita “Muezko kanpainan” kristauak garaitu egin zituen. Hurrengo urteetan, dena den, Antso eta Ordoño erregeek elkarlanean jarraitu zuten Ebro ibarrean musulmanen aurka. Garai hartan lortu zuen Antso Gartzes erregeak, bestalde, Aragoiko konderrria bere erreinuari eranstea.

Abd ar-Rahman III.ak, bera buru zela, beste ibilaldi bat egin zuen 924. urtean Iruñearen aurka. Bidean gaztelu eta herri batzuk hartu ondoren, Iruñera heldu zen, baina hiria hutsik zegoen eta eraitsi egin zuen. Kalagorri ere bereganatu zuen Kordobako emirrak (edo kalifak).

Antso Gartzes 925. urtean hil zenean, seme-alaben ezkontza-politikari esker Iruñeko erreinuaren eragina Akitaniako Bigorretik Leoneraino iristen zen. Orduan Gartzia I.a Santxez semea izendatu zuten errege, baina, sei urte baino ez zituelako, erreinua Ximeno Gartzes osabak gobernatu zuen 931n hil zen arte. 933. urtean Gartzia Santxez azaltzen da errege, eta Toda Aznar amak Iruñea gobernatzen zuen. 937. urtean Abd ar-Rahman III.ak Iruñeko inguruak arpilatu egin zituen, eta Toda amak bakea eskatu zion. Gaztelako Fernan Gonzalez kondea Todaren Santxa alabarekin ezkondu zen 931-932 aldean. Santxa lehenago Leongo Ramiro II.arekin (923. urte inguruan) ezkondu zen, eta gero Arabako konde Albaro Harremellizekin.

939. urtean, dena den, Gartzia erregea eta ama Leongo Ramiro II.a erregearekin elkar hartuta zeuden kalifari aurka egiteko. Simancas ondoan Leongo Ramiro II.a erregearen, Iruñeko Gartzia Santxez erregearen eta Fernan Gonzalez nahiz Assur Fernandez kondeen tropek Abd ar-Rahmanen armada garaitu egin zuten. Fernan Gonzalez kondeak eta Iruñeko erregeak Leongo erreinuaren gorabeheretan eragin ondoren, 957. urtean Leongo Antso I.a *Lodia* Iruñean babestu zen.

Orduan Toda amak eta Iruñeko Gartzia I.a Santxez erregeak Abd ar-Rahman III.arekin tratua egin zuten Leonen berriz ere Antso I.a *Lodia* ezartzeko. 959-960.ean Fernan Gonzalez garaitu egin zuten Errioxako Cirueña-n, Ozkabarte ondoan, eta preso eduki zuten Iruñean urtebetez. Abd ar-Rahman III.a 961ean hil zen, eta Fernan Gonzalez Iruñean askatu egin zuten, baina Gartzia erregearen Urraka alabarekin ezkondu zuten. Kordobako tronuan Al-Hakam II.a izan zen ondorengoa.

Musulmanek 963an Iruñeko erregearen aurka egin eta Kalagorri bereganatu egin zuten. Leongo tronuan, berriz, 966an Antso I.a *Lodia* pozoituta hil egin zuten, eta, ondorioz, Gaztela, Leon eta Galiziako jaunek independentzia handia lortu zuten.

970. urtean Iruñeko Gartzia I.a Santxez erregea hil egin zen, eta urte berean Gaztelako Fernan Gonzalez

kondea ere bai. Iruñean Antso II.a Gartzes *Abarka* semea izendatu zuten errege, Fernan Gonzalez kondearen Urraka alabaren senarra. Hurrengo urteetan Kordobara mandatariak maiz bidali zituzten elkarren arteko bakea mantentzearen.

975ean kristauen armadak (Iruñeko erreinukoak, Gaztelako konderrikoak eta abarrek) porrota izan zuten Gormazko gazteluaren ondoan musulmanen aurka. 976. urtean hil zen Al-Hakam kalifa Kordoban, eta seme Hisham II.ak, haurrak, hartu zion oinordetza, baina Almantzor edo Al-Mansur lehen ministroak gobernatu zuen berez kaliferria, 1002. urtean hil zen arte. 976-977. urteetan Leongo erreinuaren kontrako ibilaldiak egin zituen. Geroztik ere bai behin eta berriz. 981. urtean, adibidez, Iruñeraino heldu zen. 983an Leongo Ramiro III.aren, Iruñeko Antso II.a Garzesen eta Gaztelako Gartzia Fernandez kondearen tropek porrot egin zuten Valladolidko Ruedan Almantzorren aurka.

Garai hartan Antso II.a *Abarkaren* alaba batekin ezkondu zen Almantzor. Orduan elkarren arteko bakeak egin zituzten. Gero ere, 992an, Antso II.a Kordobara joan zen Almantzorrekin bakea sendotzera. Iruñeko erregea 994. urte inguruan hil egin zen, eta Gartzia II.a Santxez *Dardartiak* hartu zuten oinordetza. Honek Almantzorri aurre egin zion, baina Almantzorrek 997. urtean Konpostelarainoko ibilaldia egin zuen, eta Iruñera epaile bat bidali zuen erregeak itunari zin egin ziezaion. 998. urtean beste espedizio bat antolatu zuen Almantzorrek Iruñera, eta 999. urtean ere bai.

1000. urtean Almantzorrek Gaztelako Antso Gartzia kondearen aurkako ibilaldia egin zuenean, kondearen alde Iruñeko erregea atera zen. Musulmanek irabazi zuten bataila Cerverako mendizerran (Burgosko Clunia edo Coruña del Condetik iparraldera)¹.

4.3.2. Euskararen hedapena hegoaldean

Nafarroako erreinuak X. mendean hiru gune nagusi zituen: Aragoiko konderrria, Iruñea-Deierriko lurral-

dea eta Errioxako gunea (Naiara, Kalagorri, Viguera, etab.). Erregea Naiaran egoten zen. Badirudi Errioxako mendebalde Arabatik etorritako jendeak kolonizatu zuela. Harrezkero euskara hizkuntza nagusi izan zen mendetan zehar; Errioxako Ojacastroko ibarrean, adibidez. Halaber, Arabako jendea sartu zen Tiron, Oka eta Arlanzon ibaien arroetara ere¹.

Garai horretakoak dira Burgosko Cardeñako monasterian zegoen kartularioko bi agiri. 945-950 eta 956. urteetakoak dira hurrenez hurren. “Villa Vascones” herriari buruzkoak dira, eta bertan azaltzen diren euskal izenak Nafarroa eta Aragoitik etorritakoenak ziren. K. Mitxelenaren arabera, ordea, Errioxako eta Burgosko euskal onomastika batez ere mendebaldekoa zen, hau da, bizkaitarra.

Donemiliaga Kukulako kartularioan ere bada 952. urteko agiri bat, non Gaztelako eta Arabako herrien eta pertsonen izenak agertzen baitira. Garai horretakoak dira euskaraz paperean idatzitako eta orain arte aurkitutako esaldi zaharrenak. Donemiliagako glosa edo oharrak dira: “jzioqui dugu” eta “guec ajutuezdugu”⁹.

Errioxako Albeldako monasterioko beste agiri bat ere aipatu izan da, 947. urtekoa. Bertan Albeldako abadeak Gatzagan etxe bat erosi zuen. Garai bertsuko beste agiri batean “Garcea Ciclevo” jaunak Albeldako monasterioari 15 gatz-larrain eman zizkion “comparatas in villa qui dicitur Geniz de hominibus pronominatis”. Delako “Geniz” edo “Ieniz” zenbaitek Gipuzkoako Leintz Gatzaga zela zioen, baina Lizarra ondoko Jaitz (Salinas de Oro) da, eta ez Gipuzkoako herria¹³.

4.3.3. Elizbarrutiak

X. mendean, Iruñeko erreinuak bere lurraldeak zabaldu zituenean, Aragoiko lurretan monasterioak ugari ziren. X. mendean sortu zen, besteak beste, San Juan de la Peña-koa. Hala ere, ez dakigu hango kristauak Oskako edo Iruñeko apezpikuaren elizbarrutian zeuden. Orduan monasterioek hedatzen zuten kristautasuna,

landetako elizatzoen bidez, zeinak jabego pribatukoak ere izan baitzitezkeen.

Iruñean 922. urtean Basilio apezpikuaren ondoren Galindo hasi zen elizbarrutiko gidaritzan. Garai hartan asko zabaldu zen Iruñeko erreinua Aragoi aldera eta Errioxa aldera. Beraz, elizbarrutiak berrantolatze-ko aukera ona izan zen erregearentzat. Iruñeko Galindo apezpikuak beste lau apezpiku sagaratu zituen: Sisuldo Kalagorriko, Teodoriko Errioxako Tobiarako (agian Naiara ondoan Okako elizbarrutia ezarri nahian), seguru asko Ferriolo izenekoa Aragoirako, eta Feliza izeneko beste bat (agian Deierriko). Kalagorri, ordea, kristauek galdu egin zuten, eta erreinuan hiru apezpiku geratu ziren: Aragoikoa, Iruñea-Deierrikoa eta Naiarakoa, non gordea egoten baitzen. Arabak, dena den, bere elizbarrutia zuen.

X. mendean monasterio garrantzitsu bat sortu zen Iruñeko erreinuan: Errioxako Albeldako San Martingo¹. Kukulako Donemiliagakoa zen erreinuko beste monasterio garrantzitsuetako bat. 931. urte inguruan sortu zen, Iruñeko erreinuko lurralde izanda. 959. urtean sagaratu zuten eliza, eta 971. urtean San Benitoren arauak betetzen ziren⁸. Gainera, kristautasuna monje bakarreko edo zenbait monjetako monasterioak ekimen pribatuaz sortuta zabaltzen zen. Nafarroako erdi aldean eta Araban eratu ziren horrelako monasterioak⁷. Monasterioak arduratzen ziren, halaber, lurralde-antolamenduaz, bertako nekazaritza, abelazkuntza, etab. bideratuz.

Feliza izan zen 945. urtean Iruñeko apezpiku. Balentin apezpikuak berriz, 947-58. urte bitartean agindu zuen elizbarrutian. Belasko apezpikuaren agintaldia 970etik 972a artekoa izan zen. 978an Bibas apezpikua zen Iruñeko elizbarrutiko buru, eta ondoren Julian (983-987) eta Sisebuto (988-1000)⁸.

Gipuzkoan Irungo Ama Xantalengo nekropolian eliza kristaua eraiki zuten. Bertan aurkitutako Gaskoniako dukearen txanponetan oinarrituta, badirudi nekropoli gaineko eliza X. mendekoa dela.

4.6. irudia. Irungo Ama Xantalengo eliza.



4.4. XI. MENDEA

4.4.1. Euskal lur guztiak Iruñeko erreinuan

Gartzia II.a Santxez *Dardartia* 1000. urte inguruan hil zen, baina haren seme Antso III.a Gartzes *Nagusia* ez zen berehala errege-lanetan hasi, haurra zelako (992. urte inguruan jaioa zen). 1004an hartu zuen Antso *Nagusiak* errege-titulua. Hauek ziren erreinua-ren lurraldeak: Iruñea eta ingurua, Deierri eta Berrotza, Aragoiko konderrria, Naiara eta inguruko lurak, Araba, Bizkaia eta XI. mendean lehen aldiz aipatzen den Gipuzkoa. Pirinioetatik iparraldera Gaskoniarekin eta Lapurdirekin harreman handia izan zuen Antso III.a Gartzes *Nagusiaren* politikak.

Hasieran batez ere Aragoi musulmanen aurka borrokatu bazen ere, Gaztelako konderrriko eta Leongo erreinuko politikan zuzenean parte hartu zuen. Errioxa, Donemiliaga Kukula eta Soriako Garrairainoko lurak Iruñeko erreinuarenak ziren. Erregealdiaren amaieran, berriz, Ribagortzatik Astorgarainoko benetako agintaria zen. Iparraldean Lapurdiko eta Zuberoako bizkonderrriak sortu ziren. Lapurdikoak oraingo Lapurdi osoa eta Nafarroa Behereko zati bat barne hartzen zituen. Hura izan zen Ipar Euskal Herriaren lurralde-eraketa-

ren abiapuntua. Badirudi Antso III.a *Nagusiak* antolaketan hartan parte hartu zuela.

1024. urtean edo hurrengoan Antso erregeak Clunykoko Odilon abade ospetsuari monje batzuk bidal zitzala eskatu zion, Iruñeko erresumako monasterioetan arau beneditarra sartu eta erreforma gauzatu asmoz. Badirudi lehenbizi Aragoiko San Juan de la Peñako monasteriora sartu zela Clunykoko erregela, eta gero Leire, Albelda, Donemiliaga eta abarretara.

Antso *Nagusiaren* erregealdian Iruñeko apezpiku Ximeno (997-1024) eta Antso (1024-1052) izan ziren. Azken honek irakatsi zion erregeari latina eta irakurtzen; izan ere, euskara zen erreinuko berezko hizkuntza. Naiarako elizbarrutia ere hainbat apezpikuk gobernatu zuten. Aragoi zegoen beste bat, eta Araban ere bai, egoitza Armentian zuela. Garai hartan Gaztelako konderrria Iruñeko erreinuan zegoen, Gaztelako Antso kondea hil zenez gero, eta Oka-Burgos eta Valpuestako elizbarrutiak zituen¹⁴. Antso *Nagusiari* “euskaldunen jauna” deitzen zioten.

Iruñeko Antso Nagusia erregea 1035. urtean hil zen.

Antso *Nagusiak* lau seme zituen: Ramiro (ezkonztatik kanpo izana), Gartzia, Fernando eta Gonzalo. Gartzia III.a Santxez *Naiarakoa* izendatu zuten Iruñeko errege, eta haren babespean aginduko zuten Fernandok Gaztelan, Ramirok Aragoian eta Gonzalok Sobrarben eta Ribagortzan.

Gartzia III.ak Fernando anaiari lagundu egin zion Leongo Bermudo III.a erregearen aurka, eta 1037an Fernando Leongo eta Gaztelako errege zen, baina Iruñearentzat geratu ziren Santandertik Oka mendietarainoko lurrak, hau da, Errioxa, Gaztela Zaharra, Araba, Bizkaia, Durango eta Gipuzkoa. Kalagorri ere Gartzia erregeak askatu zuen musulmanengandik. Orduan Naiara-Kalagorriko elizbarrutiak Gaztela Zaharreko lur guztiak hartu zituen (lehen batez ere Valpuestakoak izanak), eta, ondorioz, Valpuestako elizbarrutia deuseztatu egin zen.

Azkenean, 1054. urtean, Fernando eta Gartzia anaiak etsaitu eta beren armadek borroka egin zuten Ages eta Atapuerca herrien artean dagoen lautadako batailan, 1054ko irailaren 1ean. Gartzia *Naiarakoa* erregea hil egin zuten. Antso IV.a Gartzes *Peñalengoa*, Gartzia semea, berehala izendatu zuten errege Atapuercan bertan. Antso IV.arentzat geratu ziren Errioxa, Araba eta Bizkaiko lurrak Iruñeko erreinuan, baina Gaztela Zaharreko lurrak ez. 1076. urtean Iruñeko Antso IV.a erregea Peñalen-en hil egin zuten, anai-arrebek eta zenbait noblek traizio eginda. Orduan Gaztelako eta Aragoiko erregeek Iruñeko erreinuaren lurraldeak banatu egin zituzten. Gaztelako Alfontso VI.ak Errioxa Kalagorriaraino, Araba, Bizkaia eta, agian, Gipuzkoako zati bat hartu zituen. Nafarroa eta Gipuzkoa Aragoiko Antso I.a Ramirezen agintepean geratu ziren. Harrezkero Iruñeko eta Aragoiko erreinuak elkartuta mantendu ziren 1134. urtera arte. Aragoiko Antso I.a Ramirez 1094. urtean hil zenean, Pedro I.a semeak hartu zuen bi erreinuen agintea. Pedro I.a 1104. urtean hil zen¹.

XI. mendean 1078. urtera arte Iruñeko elizbarrutian apezpikuak Leireko abade ere izan ziren: Ximeno (1005-1024), Antso (1024-1052), Joan (1054-

1068) eta Blasco Gardeliz (1068-1078). Gartzia infantea izan zen hurrengo apezpikua Iruñean (1078-1083), eta Pedro Rodakoak 1083tik 1115. urtera arte gidatu zuen elizbarrutia⁸.

Arabako elizbarrutia, egoitza Armentian zuena, Naiara-Kalagorrikoak bereganatu zuen 1088. urtean³.

4.4.2. Gipuzkoaren sorrera

Berez apokrifotzat hartzen diren zenbait agiritan Gipuzkoa aipatzen bada ere, egiazko lehen agiria, oraingo Gipuzkoa aipatzen duena, 1025. urtekoa da. Gartzia Aznarrek eta emazte Gaila andreak Aragoiko San Juan de la Peñako monasterioari Altzoazpiko Olazabalgo Salvatore monasterioa eman zioten. “Garcia Acenariz de Ipuscua” dator bertan. Olazabalgo monasterioak ondasun ugari zuen, hasi Aralarren eta Tolosa aldean barrena Aia eta Elkanoraino.



4.7. irudia. Altzoazpiko Olazabalgo Salvatore eliza.

San Juan de la Peñako 1048. urteko beste agiri batean “Galga de Ipuçcha” azaltzen da, eta monasterio bereko 1049ko beste batean “Galga ex regione Ippuzka ... domno Sancio in monasterio Sancti Salvatoris de Ippuzka...”. 1056. urteko beste agiri batean “Sancti Salvatoris de Ipuzka...” dio. Leireko 1066. urteko beste agiri batean sinatzaileetako bat “... Senior Orbita Acenariz in Ipuzcoa testis...” dago idatzita.

Donemiliaga Kukuluan ere badira Gipuzkoa aipatzen duten bi agiri: 1080-86koa da bata (“... S. Andree apostoli et vocato Stigarriua, inter Vizcacia et Ipuzcua sito...”), eta 1091ekoa bestea (“... inter Bizcacia et Ipuzcuam...”)¹³.

Altzoko monasterioko ondasunak XI. mendean Aralar eta Aia artekoak izateak Zestoatik Aralarrerainoko transhumantzia zegoela pentsarazten digu

(askoz ere lehenago ere egongo zen, noski)¹⁵. Aralar-ko San Migelgo eliza IX. mendekoa dela diote, Iruñeko elizbarrutiko zaharrena. Gartzia III.a Santxez *Naiarakoa* erregeak mesedeak egin zizkion. Antso IV.a *Peñalengoak* hamabost saroi eman zizkion Aralarren eta beste zenbait lekutan⁸.

“Ipuçcha” edo “Ipuzcua” hitzaren erroan “Ipu”, “Lipu” edo “Gipu” pertsona-izena egon daiteke, ondoan euskarazko “-tza” atzizkia duela. 1066-1076 denboraldian erregearen ordezkari Orbita Azenariz (“senior in Ipuscua” izan zen. Orbita edo Bela Azenariz gebaratarren leinuko lehen ordezkaria dugu. Ondasunak Errioxan, Arabako Agurain aldean eta Leintz bailaran zituen)¹⁵.

Interesgarria da Gipuzkoa izenaren eratorrietako bat 943. urteko agiri batean azaltzen dela jakitea: “Ego Go // metiza trado ad ipsa regula una ferragine mea in Gipuzare, uxta fonte, in valle de Ripa”¹⁶. “Gipuzare” leku-izenaren kokalekutzat Burgosko Okamendietan hartzen du David Paterson ikerlariak¹⁷.



4.8. irudia. Mutriku. Astigarribiako San Andres eliza.



4.9. irudia. Aiako San Esteban eliza.

4.4.3. Aralar eta Zestoa ingurua

Aralar erdigune hartuta, zenbait toponimo berdin edo berdintsu daude Gipuzkoa aldera eta Iruñea aldera, hau da, udaberrian itsaso aldetik eta Iruñea aldetik joanda Aralarren elkartzen zirenen neguko kokalekuetan. Gure ustez kontuan hartzekoak dira leku-izen hauek:

- Elkano. Aiako Elkano ezaguna dugu, baina Iruñearen ondoan, Eguesibarrean, bada beste Elkano bat.



4.10. irudia. Aia. Elkanoko eliza.

- Bedama. Zestoa, Aia eta Errezilen mugan Bedama auzoa dago. Ataunen ere, San Gregorio parean bada Aitzarte aldean Bedama baserria, eta, bestek beste, 1210. urteko agiri batean¹⁸ eta 1290. urteko beste agiri batean¹⁹ azaltzen da “villa de Berama” herrixka Nafarroako Arakil ibarrean.

- Zizurkil. Gipuzkoako herria da, eta Debako partean, Itziarko Arroaerrekan (Zestoako mugatik gertu), bada Zizurrola baserria ere. Iruñerrian, berriz, Zizur Nagusia eta Zizur Txikia ditugu.



4.11. irudia. Deba. Arroaerrekako Zizurrola baserria.

- Ilurdain. Zestoa Ilurdain (orain Illurdan) baserriak ditugu, eta Asteasun Illurdi erreka eta Illurdi mendia Iturriotz inguruan, Aia eta Asteasuren arteko mugan, baina Iruñea ondoan, Eguesibarrean, Ilundain eta Ilurdoz herrixkak daude. Nafarroako Artaxoan Iruridoeta (orain Irurdota) izeneko leku-izena dago²⁰, eta Zestoa bertan ditugu Ilurdain eta Idoieta (edo “Iruitta”).

- Arrona. Zestoa dugu Arroa auzoa, eta Nafarroan, Lizarra aldean, Arroniz herrixka.

- Beain edo Berain. Zestoako San Lorente ondoko baserria eta lurraldea da (orain Bein ahoskatzen duguna). Iruñerrian Beriain udala dago, eta Andia mendizerran Beriain mendia ere bai.

- Munain. Errezilgo parajea da, (Bedaman Bedanburu ondoan dago, eta bertan historiaurreko tumulua ere badu). Gipuzkoan Zerainen Brinkola aldera ere bada Munain leku-izena. Ataunen ere hiru baserri daude Amuñain izenekoak (Amuñainazpi, erdi eta garakoa) Otamotz aldean Elbarrenan. Araban Agurain eta Bikuña artean ere Munain herrixka dago. Nafarroan, berriz, hiru Muniain daude: Iguzkitza-Muniain (Lizarrako merinaldea), Gesalatz-Muniain (Lizarrako merindadea) eta Artzi-Muniain (Zangozako merinaldea).

- Sagabiaga. Ataunen Sagabiaga (Sabia) bordaizena dago²¹, eta Zestoan Iraetako Saabia edo Sabea dugu. Deban, berriz, Sakabiaga (“Sakabiya”) baserriak, zaharra eta berria.

- Arakeriztain. Oraingo Arakistain baserria da, Debako lurretan Itziarko parrokian dagoena. Nafarroan, berriz, Arakil (Araceli) ibarra dugu.

- Orendain. Nafarroan Mañeru ondoko Artatza herrian dago Orendain eremua, bere San Andresen elizarekin, eta Gipuzkoan Alegi ondoan dugu Orendain. Aiako partean, berriz, Etxeta bailaran dauden Orendain baserriak ezin aipatu gabe utzi.

- Iroztegiko San Kristobal (Aizarnazabalgo Saiazen) eta Iruñea ondoko Irotz ditugu, azken hau Esteribar udalerrian, Elkanotik gertu.

- Aldaba, Tolosan dugu, eta Iruñea ondoko Itzan ere bai (Iruñerriko zendean).

- Aia udalerria eta Ataungo Aia Gipuzkoan, eta Aiantz Nafarroan, Irunberri-Agoitz aldean. Zestoan, berriz, Aiakelu izeneko lekua dugu.

- Aria saroia Zestoan bazen 1380. urtean, eta Aria herria Nafarroan Garralda ondoan dago, Orreagatik gertu.

- Ororbia Iruñea inguruan Aratzuri ondoko herrixka da. Errezilen Intzitorbia saroia zegoen (1461-X-4) oraingo Antxiturbian.

- Mutiloa. Iruñea inguruan Arangurengo udalean Mutiloagoiti eta Mutiloabeiti daude. Gipuzkoan berriz, Mutiloako udala dugu Segura ondoan.

- Zestoan 1479an Maotz leku-izena azaltzen zaigu Aizarnan, eta Meotz herrixka dugu Nafarroan Agoitz ondoan, Longida udalerrian.

- San Migel. Santu honi eskainitako elizak ere ugari dira Gipuzkoan eta Nafarroan. Aiako Laurgainen (lehen Laurkain), Zizurkilen, Zumaiako Artadin eta Aizarnazabalen, adibidez, eta Iruñerrian Noainen eta Zizur Txikian, besteak beste. Aralartik San Migelen irudia urtero eramaten dute Nafarroako hainbat herritara. Pazkoa hurrengo astean Iruñean izaten da, eta aztertzekoa litzateke garai batean orain irudia ibiltzen den lekuetatik Aralarrera transhumantziarik egiten zuten jakitea. Gipuzkoako Goierriko herri batzuetara ere joaten zen garai batean San Migelen irudia, eta orain ere Igaratzara iristen denean gipuzkoar asko joaten zaio harrera egitera. Ez da ahaztu behar XX. mendean transhumantzia egiten zuten artzainak negualdia kostaldean igaro eta Iraetan biltzen zirela (enaren antzera) handik abereekin Aralarreraino eta Andia mendizerraraino joateko²².



4.12. irudia. Zizurkil. San Migel ermita.

Zestoatik Aralarrerainoko transhumantzia aspaldikoa zela onartuz gero, ez da batere harritzekoa erro-matarren garaiko Baskunes-en egindako bi denario Amaldan aurkitu izana.

Zestoara Iturrioztik eta Erdoiztatik etorrira Etumeta aldean sartuko ziren abere-taldeak transhuman-tzian, edo Gazume eta Komisolatza aldetik etorrira. (Argitu dezagun “Gomisolaça” forma gutxienez 1478. urteaz gero azaltzen dela. Gure ustez latinezko “comes” edo “kondea” eta “olatza” hitzen elkarketa

da, baina inola ere ez “komisio + olatza”, zeren erdi-ko “i” letra ez baita agiri zaharretan inoiz ere ager-tzen). Komisolatzako bidegurutze ondoan, zerbait iparralderago, dago Txorondegia, zeina gure ustez antzinako Zegondia (Segontia) baita. Induskatzeko muino interesgarria da, inola ere, antzinako aztarnak topatzeko aukera baitago. Etumeta (lehen Itumeta) ere ondoan du iparraldean, Basajaunaren kondaira eta guzti. “Kanposantuko zuloa” lekua ere ondoan du, bertan, Zestoan, Errezilgo lurrekin mugan.



4.13. irudia. Errezil.
Komisolatzako gurutzea.

4.14. irudia. Errezil.
Txorondegia gailurreko
zutabetxoa.



Santa Engraziaren barrenean “Arranbide” (1479) izeneko bidea zegoen San Pelaio ermitaraino. Beste bide bat, lorbidea edo zamak gurdiz eramatekoa, Aizarnako Ipintza eta Ezenarro ondotik Aizarnako eliz aldera jaisten zen. San Pelaiotik arranbidea (edo abelbidea, “mesta de Sustayaga”, 1511) Sustaiaga baserrira, orain “Sustraya” ahoskatzen dugunera, eta Altzolarasko jauregira zihoan. Hortik irteera Urdaneta aldera eta Indo baserritik Txiriboga aldera izango zen, edo Indamendi atzetik Saiazko San Kristobal ermitatik Aizarnazabalgo Zubialdera. Zestoako partean Ibiakaitzen (1380) (ibia, oraingo Idiakaitz), agian Iraetan, Amilibian (ibia) eta Errezubiagan (1385) (zubia, Txiriboga aldean) zeharka zezaketen Urola ibaia, eta Aizarnazabalen Mihurubian (oraingo Mirubian) egongo zen beherago ibaia zeharkatzeko lekua.

Zumaiako Oikian hasi goiko Artabila baserritik eta Mantzizidor eta Soutaraino lerroa dago etxeak bidearen bi aldeetara direla. (Bide hau Ibañarrietatik Oikia-ko Otsango ondoko Errenteriaraino, eta ez Beduaraino, burdin gaiak eta merkataritzakoak ekarri eta eramateko ere izan zitekeen). Lerroa ikusten dugu, halaber, (baina ez merkataritzarakoa, abereentzako baizik) Arroagoian, hasi goiko Agerre baserritik eta barreneko Irao baserriraino. Orobat Endoiako gainean, Uztapide baserritik Bisusbide baserriraino. Bidea, noski, Arroatik Endoiara zihoan (edo alderantziz), eta hortik Lastur eta Itziar aldera, besteak beste.

Transhumantziako bideak erromatarren garaian eta XI, XII eta XIII. mendetan Gipuzkoan nondik nora zihoazen jakiteko oso interesgarria da Elena



4.15. irudia. Zestoia. Amilibiak Pagiolarre baserritik. Hondoan “Ederra” industria (Buskandegi baserria zegoen lekuan).

Aralartik Urola eta Oria ibaien arteko mendietatik etorrira, Urola eta Deba ibaien arteko lurretara pasata, Oikia, Arroagoia eta Endoia bidea ardatz dutela egindako herri-guneak direla ikusten da.

Barrena Osororen lan berezitua²³. Gipuzkoako kostaldea zen helmugetako bat, eta bertan Getarian, adibidez, Salvatore eliza nagusiaren oinarrian XI-XII. mendeko hilerria aurkitu da²⁴.



4.16. irudia. Arroagoia Marizelai baserritik.

4.17. irudia. Zestoako hiribilduaren portalea. Arretzekoa

4.4.4. Hirietako foruak

XI. mendean interesgarriak izan ziren erregeek bul-tzatuta sortu ziren hiri berriak. 1090. urte inguruan Aragoiko eta Iruñeko Antso V.a Ramirez erregeak Lizarra izeneko lekuan “frankoekin”, hau da, inongo jaunen mendeko ez ziren atzerritarrekin, hiria sortzea erabaki zuen. Horretarako pertsona haiei “foru” bere-zia eman zien, eta haren bidez merkataritzarako askatasuna izango zuten. Gainera ordura arte ez bezalako zerga-salbuespenak izango zituzten. Antso erregeak lehenago gauza bera egin zuen Aragoiko Jaca hirian, eta geroxeago, 1095. urtean, ere bai Gaztelako Alfonso VI.ak Logroñon²⁵.

Foruen bidez jaunek mendekoei pribilegioak eta eskubideak ematen zizkien. Morrontzako zama arintzen zien, eta morroi izatetik bilau bilakatzen ziren hirian.

Foruek merkataritzarako askatasuna, feriak eta azokak egiteko eskubidea ematen zien, eta zergak arintzen zizkien. Hiriko komunitateari jaunak esku-men batzuk uzten zizkion (justizia eta defentsa, adibidez), baina hauek foru-motaren araberakoak ziren.

Foru-familia esaten zaio foru-gutun bera zabaldutako taldeari. Jacako forua Nafarroako erdi aldera eta Gipuzkoako kostaldera hedatu zen: Donostiara



(1180)²⁶, Hondarribira (1203)... Logroñoko forua hedatu zen gehien Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Gasteizen (1181), Arrasaten (1260) eta Azkoitian (1324), besteak beste, jaso zuten hiri-gutunen bidez Logroñoko forua, eta Zestoak ere bai, 1383ko hiri-gutunak Iraurgiko Miranda edo Azkoitiko foruari aipamena egiten diolako. Forua hiria gobernatzeko arauen bilduma zen.

Hiri-gutunaren bidez sortutako hiribilduek ezau-garri jakin batzuk zituzten: hirigunea harresiz inguratu-tuta zuten, sartzeko portaleak zeuden, biztanleen etxeak bertan barruan zeuden, harresien barruan espazio publikoak zeuden, etab.⁴.

4.5. LAUGARREN KAPITULUKO OHARRAK

- ¹ LACARRA, J. M. Historia política del Reino de Navarra. I. alea. Nafarroako Aurrezki Kutxa. Aranzadi argit. Iruñea, 1972. (28-178, 181-298. or.).
- ² HIGOUNET, Ch. Histoire de l'Aquitaine. Privat Editeur. Tolosa, 1971 (135-137, 149, 150. or.).
- ³ MARTINEZ DIEZ, G. *Guipúzcoa en los albores de su historia*, in Ciclo de Conferencias "Historia de Guipúzcoa". Real Sociedad Vascongada de Amigos del País. Donostia, 1978. (39-41, 45. or.).
- ⁴ RUIZ FERNANDEZ, A. eta AGIRRE GARTZIA, J. Euskal Herriko Erdi Aroaren Historiarako dokumentu idatzi eta grafikoen iruzkin-ereduak. UEU. Bilbo, 2006. (17-29, 52-66, 93-119. or.).
- ⁵ ORELLA, J. L. eta beste. Euskaldunak historian barrena. Jokabideak, pentsamoldeak eta eguneroko bizitza. Gipuzkoako Kutxa. Donostia, 1989. (70. or.).
- ⁶ DUPUY, M. Les grandes heures de l'Aquitaine. Librairie Académique Perrin. Paris, 1973. (105-111. or.).
- ⁷ LACARRA, J. M. Estudios de historia navarra. Colección Diario de Navarra, 3. Iruñea, 1971. (11-15, 18, 19, 29. or.).
- ⁸ GOÑI GAZTANBIDE, J. Historia de los obispos de Pamplona, I. S. IV-XIII. Iruñea, 1979. (60-80, 83-114, 118, 126, 141, 142, 149-248, 310. or.).
- ⁹ MITXELENA, K. Textos arcaicos vascos. Minotauro argit. Madril, 1964. (22-25, 41-44. or.).
- ¹⁰ XX. *Santa Maria La Real-en zutarriak*, in Zarauzko Arte-Historia Museoa. II. buletina. 2005, uztaila. Zarautz. (6. or.).
- ¹¹ IBAÑEZ, A. Menosca eta Ipuscua artean. Arkeologia eta Lurralde Zarauzko (Gipuzkoa) Santa Maria La Real Elizaren Aztarnategian. Zarautz, 2003. (13-17. or.).
- ¹² IBAÑEZ, A. eta beste. *Evolución cronotipológica de las inhumaciones medievales en el Cantábrico Oriental: el caso de Santa Maria la Real de Zarautz (Gipuzkoa)*, in Munibe, 57, 2. Aranzadi Zientzia Elkartea. Donostia, 2006. (419-434. or.).
- ¹³ MARTINEZ DIEZ, G. Guipúzcoa en los albores de su historia (S. X-XII). Gipuzkoako Aldundia. Donostia, 1975. (17-21, 33-45, 175-176, 179-182, 187, 189, 191, 193. or.).
- ¹⁴ PESCADOR MEDRANO, A. *Erresuma eta erregetza baten historia*, in Euskal Herria XI. mendean. Nabarralde. Pamiela. Iruñea, 2004. (17-54. or.).
- ¹⁵ BARRENA OSORO, E. La formación histórica de Guipuzcoa. Mundaiz, 5. Donostia, 1989. (56, 62, 77, 80, 401-405. or.).
- ¹⁶ UBIETO ARTETA, A. Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076). Textos Medievales, 48. 31. agiria. Valentzia, 1976. (46. or.).
- ¹⁷ PETERSON, D. Primeras referencias de Guipúzcoa, in Fontes Linguae Vasconum, 97. zk. Iraila-abendua, 2004. Iruñea. (597-608. or.).

¹⁸ JIMENO JURIO, J. M. eta beste. Archivo General de Navarra (1194-1234). Fuentes documentales medievales del País Vasco, 89. zk. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1998. (118. or.).

¹⁹ PESCADOR MEDRANO, A. eta beste. Archivo General de Navarra. Sección de Comptos. Registros N° 3 y 4. Fuentes documentales medievales del País Vasco, 104. zk. Eusko Ikaskuntza. Donostia, 2002. (277. or.).

²⁰ JIMENO JURIO, J. M. *Datos para la etnografía de Artajona*, in Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra, 1970. (73. or.).

²¹ ARIN DORRONSORO, J. *Pueblo de Ataun*, in Anuario de Eusko Folklore, 1927. Donostia. (7. or.).

²² Eskerrak eman nahi dizkiot Fernando Txueka Isasti lagunari albiste hauen berri eman didalako. Bestalde, artzainak goi-mendietara beren inauteria ospatuta abiatuko zirela pentsa daiteke, abeltzaintzako transhumantziaren negu amaierako festak baitira inauteriak.

²³ BARRENA OSORO, E. Gipuzkoako Komunikabideen Historia. 1/ Aintzinaroa eta Ertaroa. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 1991. (40, 41, 88, 89, 104, 105, 136, 137. or.).

²⁴ TXUEKA ISASTI, F. *Getariako erregearen balea eta Donostiako probestua*, in Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte. LXIV-1-2008. buletina. Donostia, 2008. (131. or.).

²⁵ LACARRA, J. M. Fueros de Navarra I. Fueros derivados de Jaca 1- Estella-San Sebastián. Nafarroako Foru Aldundia. Iruñea, 1969. (17-31. or.).

²⁶ BANUS AGIRRE, J. L. El Fuero de San Sebastián. Donostiako Udala. Donostia, 1963. (79-110. or.).